

LUPAREKID
Josefa Barandiaran

EKONOMIALARIA

Kortaren bidetik, edo kortakotik

Kontsulta aldarrikatu berri du Ibarretxe lehendakariak Euskal Erdian. “Demokratak” sano asaldatu ditu horrek, noski. Garbi dago kontsulta egin orduko –Gipuzkoako “orduko” zentzuan; hau da, egin aurretik– garaipenak ziurtatzea gustatzen zaigula edonori. Apustuak baldintzak adostean irabazi behar baitira. Eta bestela, egin dezatela jeltzaleek Euskal Y egitasmoari buruzko kontsulta bat ere, bestarekin batean. Hori bai, egitasmoaren aurrekontuak, emaitzak, ondorioak eta abar garbi plazaratuz, informazio kanpaina sendo batez.

Joan da uda. Zarautzen lehergailuz jardun dute beste edozertan hobe leudekeenak. Sebastian artzapezpikuak Perez batekin du segida Iruñean eta Euskalerrria Irratiak lizentzia barik jarraitzen du. Bizkartzainak itzal dituztela bizi da makina bat gurean, sende presoak bisitatzeko milaka kilometro egiten beste hainbat eta etorkinak, pobreziatik marjinalitatera bidaiari, etorrian. Kristau bizi-tza galzorian den espeziea da eta Arnaldo Otegi hitz egiteagatik dago giltzapetuta. Osakidetza euskaraz artatua izatea miraria da oraindik, Bardulia bertsoari so dugu, Bizkaia Athletic, Iparraldean errugbya nagusi eta Hegoaldeaz, nork jakin?

Espainiako Audiencia Nacionala (AN) euskal Amesgaizto Nazionala da, makrosumarioen, hildako komunikabideen eta enparauen artean.

Zaharrak berri esan zuenak bazekien zerbait, horratio. Euskal abertzaletasunak XXI. mendera egokitu behar du bere diskurtsoa –Imaz dimisionarioak arrazoi du horretan–, Zabaltza historialariak esan



INIGO AZKONA

duena onartuz, hasteko: euskara galbidean bada ez dela horrenbeste kanpoko indarren eraginez, baizik bertakoon utzikieriaz. Eta ekonomian, mundu globalizatuan bere burua (bir)kokatu beharko du Euskal Herri zaharrak, nortasunez iraungo badu.

Berrikuntzan, sorkuntzan, elkarrizketarako gaitasunean edota garapen jasangarrian zer egin eta ikasi franko dugu. Bakoitzari berea aitortzen ere bada zer hobeturik, kulturen, politikan edota ekonomian. Sariak sari Koldo Izagirrerri literatur lana aitortu behar zaio eta Bilboko Kafe Antzokiari euskalduna mundu erakargarri

bihurtzeko lana, euskara zinegotziak zinegotzi. Ekonomian, aldiz, bi ildo nagusi bederen badira, nik uste.

Euskaldun batzuek Joxe Mari Korta hil zutenean harakiri ekonomikoaren adibide tamalgarri bat sortu zuten, besteak beste. Euskal bertsioko berrikuntza, inbertsioa, sormena, ikuspegia, elkarrizketa beharko ditugu etorkizunean ere, gure bizi maila hobetu edo mantentzeko; lanpostuak sortu eta mantentzeko, duintasunez. Neuk “Kortaren bidetik” deituko nukeenetik joan gaitzke,

beraz. Eta lan eskerga dago hor. Edo kortakotik ere joan gaitzke: gure zilborrari begira egotetik etorriko zaigun basamortu ekonomikoarenetik, *bertangoxo*, funtzionari, *lerdemerke* jarreran sartu eta biziraun; euskal PRI sindrome mexikarra inportatu eta laneskua edo talentua esaten dioten hori baino ezin esportatuz utziko gaituena.

Ez dago mila urte irauten duen loriarik eta esaerak garbi dio “egon hadi lo eta jango dek me”. Azken aldirian Italian egon denak jakingo du gainbeheraren nolako isla duten han. Eta ez naiz ari Erromatar Inperioaren garaian hasitako gainbeheraz. XX. mendeko gerra handietako errautsetan indartu zen Italiar, baizik. Kortako bidean Olivetti idazmakina zahar bat jarri genezake, Euskalduna ontziola zegoen tokiko garbiaren pare, Alfa josteko maki-

nen ondoan. Eta museoa egin, txinatarrak Europa parke tematikoan koka gaitzaten. ■

«
Kortako bidean Olivetti idazmakina
zahar bat jarri genezake, Euskalduna
ontziola zegoen tokiko garbiaren pare,
Alfa josteko maki-
nen ondoan.
Eta museoa egin, txinatarrak Europa
parke tematikoan koka gaitzaten
»

